

Literatura lantzea hizkuntzaren ondasunez

Bi urte terdi izango dira Jose Mari Velez de Mendizabal asteakari hontan idaztera bultzatzen duela. Hasiera batean larria izan bazitzaioke ere, itxuraz inongo estuasiak gabe bete izan du bere egitekoa. Zintzo eta ongi bete ere. Orain, kulturagintzarako zama handi-goa leporatzen duelarik, kargu berrian sartzearen zor zaizkion zoriak eman baino lehen, adiskidetasunak ematen didan lizenziarekin, konpromiso larriago batean sartu nahi nuke Zergatik ez? Eskariak ez dute balio gauzak egiten ez dakitenentzat eta, zori-errez, hori ez da Jose Mariaren kasoa.

Autonomia bidea hartu zenetik lan asko egin da euskararen alde. Ez dut esango guzaki beharrezkoak ez zirenik, euskararen normalizapenak hainbeste zulo dituzene eta denak nolabait bete beharrezkoak. Baina bai, esan nezake, eta hau ezta lehen aldiz diodana, zenbait langintzatan etxea tailatuak egiten gabilazta. Atzekoaz aurrera. Zeren plangintzaren aurrean ez baita ezer ikusten literaturagintza indartzerik. Horren lekukotasunez jar genezake Euskal Antzerki Taldeen Biltzarraren ondorioa. Argi biderik aski ematen digu iragan abentidik honeratik egin denak, Argia aldizkariaren orrialdeetan datorrenak (ikus, Argia, maiatzaren 22koa). Hori behar bezala antolatzeke eragozpenak badaude, zer esan idazle sortzaileei buruz? Antzerki taldeak nolabait eratu zuten, telebistak beharrezko dituen ustean, baina badiru gure agintarion artean inor ez dela konturatzen idazle sortzaileak, literatura landuko dutenak, nolabaiteko langintzaz hornitzen ez badira, ez dugula ez antzerki eta ez telebista. Gurek behinik-behin. Eta herri baten kultura ezina da aurrera eramatea herbestetikako itzulpen soilez, bertatik ere sortu behar da, eta batez ere bertatik, herri bezala nolabaiteko nortasuna edukiko badugu.

Egile sortzaileentzat languntasuna aipatzen

delarik, batzuk uste dute protezionismoz hitz egiten ari gerala. Horietakoen kultur mundua hain tipia denez, ez dira oharitzen literatura herriaren ondasuna denik. Beste batzuen ustez, gure literaturaren maila beheregiokoa da laguntza serioak emateko. Egia esan, itzuli eta beste hizkuntzetan ospea eta salmentak errez edukitzeakoa balitz, orduan ez luke behar inolazko laguntzarik. Baina, zoritxarrez, ez da hola. Gure literaturagintza aski maila behean dago. Eta, horregatik behar du laguntza, salda landuz eta girotz hobekuntza lor ditzazkegunez. Uzta hartuko bada, lehenik eroin eta landu behar da.

Herri bezala kizkuntzak bereizten bagaitu, eta hizkuntzaren ondasuna literatura baldin bada, zertara datoz gure zalantzak?

Jose Mari Velez de Mendizabalek badaki horrenbeste, eta espero du aurrean aurkituko dituen oztopoak gaindituko dituela.

Euskaraz kili-kolo dabilen asko literatu da alfabetatze eta euskalduntze lanetan irakase aritzeko, beste asko administrazioan itzultzaile-tarako, ez guti irratik eta telebistarako; baina, oraindik inor ere ez literatur sorketarako. Eta, sorketazailerik bada gure herrian gainerako ekintzak hain beharrezko duten materiala eskaintzeko. Gutienek, gogoan izan beste ekintzak hainakoa badela literaturagintza.

Herriari hizkuntzak bere nortasuna eman dion lekuan, gezurra badirudi ere, kazeritazta kaxkar batan bakarrik da idazlea zerba itzabazteko aukera. Periodismoak doarik edo zaletasunik ez duen idazlearen adibide dugu hainbeste libururen egile den Yon Etxaide, ogibidez egunerok itas-portuakotako bulago batean lana egin ondoren atxetik irten gabe jotake ariituko dena, inondikako laguntzarik gabe, idealik garbierari gogoz oratuz, lan eta lan. Idazten ikasi beharrean

flauta jotzen ikasi balu, orain behar bada orkestra batean ariituko zen alogeraz.

Baina, otoi, berezi ditugun protezionismoa eta laguntza. Literatur sorketarako laguntzak edozein naziotan, mundu zibilizatuetan edozein gobernuak erabiltzen ditu. Eta, gezurra badirudi ere, herri baten kulturarako ezta negozio txarra. Hortarako eredu asko har genezake, Sueziaokoa oso ona bada ere, Espainiakoz konformatuko ginake. Zeren, azken batean zer da herriarentzat ondasunak erostea baizik?

Sariketak ordea, lehenak aski ditugu. Itxura betetzeko onak badira ere, luzarora begira soluzio kaxkarrak.

Bestealde, egia da politikoki batzuk edo gehienek hizkuntza kontua demagogikoki erabiltzen dutela, baina euskaltzaleok zer erantzun ematen diogu? Egitekorik aski dugu eta oro ioraintsu P. Lafitte jaunak Dirassar kazetari jaunari ihardetsi ziona: "Euskaraz maite dutenek ere ez dutela aski bultzatzen. Gure mintzaira da euskara, gure ondasun paregabea. Euskaraz gai da edozein hizkuntza bezala edozein gauza aipatzeko, berdin jakintza sail arreturatueta. Baina guk ez dugu behar adina trebatasun, guk ez dugu euskara aski baliatzen. Ausartago behar genuke ibili euskararen alde".

Hire mailatik, Jose Mari, bizkortzeko ahalmen eta aukera hobeak dituk, eta frutu ederrik espero dicit. Zorionak nere partez eta do-luminak hire emazteari nereraren partez.

Juan SAN MARTIN

De nuevo vengo a insistir sobre la idea que tengo fijada desde hace años para el desarrollo literario en euskara, y para la que siempre abrigué esperanzas dentro del marco autonómico: la idea de una planificación adecuada

para el apoyo al autor a imitación de lo que se efectúan en otras lenguas. Sin necesidad de inventar nuevas fórmulas, sirviéndonos de las experiencias dentro de la variedad de modelos que nos ofrecen otros países europeos, pero fin y al cabo, no consisten en ningún proteccionismo, sino de la compra de un producto que el patrimonio cultural del pueblo. Al respecto deseo y espero que una persona de la HOJA EUSKARA, colaborador de la HOJA EUSKARA durante más de dos años, me escriba correspondiente de Euskaltzaindia y miembro de la Asociación de Escritores en Lengua Vasca en definitiva, persona vinculada a la cultura literaria del país y que en sus actividades profesionales ha mostrado ideas claras, sepa contactar desde sus instancias del Departamento de Cultura. El desarrollo literario es fundamental para la vida del euskara, y como tal, no existe ningún plan serio que cubra el tema. Sin desarrollo literario el euskara vasco queda depreciado, reducido al valor intrínseco de los estudios lingüísticos que son importantes "pero, como se sabe, una única, se corre el riesgo de caer al vacío en lenguas muertas. Una lengua moderna debe desarrollarse con acceso a todas las actividades de la vida moderna, cubriendo una gran variedad de medios, como son el teatro, cine radio, televisión, etc., que necesitan nutrirse de obras propias creadas en el propio país, además de traducciones. Y en este sentido, desgraciadamente, no existe ningún proyecto serio que multiplique los concursos literarios, pero como no sirven gran cosa en una lengua restringida como la nuestra; no son solución. Hay que revitalizar el caldo de cultivo que requiere el proteccionismo, y eso, hoy por hoy, solamente puede lograrse valiéndose de alguno de los modelos de apoyo al autor que circulan por la geografía continental.

Phoinikoak

Gauza jakina den bezala Laphurdiko Garatek Napoleon I/ari euskal Statu independenten baten proiektu bat presentatu zeraukon. Garaten abuzur Statu independenten hunen izenak "La Nouvelle Phoinicie" (Phoinikia Berria) izan behar zuen. Gizon guzietik pentsatzen duten arauak kontsideratzen ba ditugu, bethi izen berriak analogien bidez emaitzen direla dakigu. Baina zeintzu ziren analogi horak, euskaldunen Statuari Phoinikia izena emaitke? Askotan hontan pentsatu ukhan dut, eta hauteman. Behintzat niri hunelako analogi batzu nabari izan zaizkit, baina bethi ez ziren osoak, heietan zathi batenatan dys-analogo, edo pseudo-analogo bait ziren. Dudarik gabe Phoinikia Zaharreko Gubernari Burgesek bethi zikoizkeriaz eta zekhenkeriaz ber herriari buruzko gauzetan pentsatzen zuten. Eta hau, orain Phoinikia Berri hontan euskal buruzagi ta burgesez ere gertatzen da. Phoinikoak berez ez ziren semitak, zeren eta semitak berez basamortuko semeak bait dira, eta phoinikoak, behintzat epokha historikotan, itasgizonak bait ziren. Hala ere orain dakigunez, phoiniko hauiek laister beren ama-hizkuntza utzi zuten eta erdara semitiko bat onhartu, ber hau beren ipiritu praktikorentzat askozaz vahotsuago bait zen. Beraz hemen bezala han ere. Baina Garate Laphurdikoaren gogoan dudarik gabe berteze analogi batzu egon ziren. Dudarik gabe BIBLO(s) izena ta BILBO ia-ia berdin direla ikhusi zukeen. BIBLO(s) hiri zahararen izena semitaraz GUBLA izanarren, munduan hiri hau ezagutua da, zeren haren izena LIBURUK (biblos: graitkaraz) agiteko materialari eman bait zeraukon. Berhain Biblos zaharra munduan BIBLIOPOLIS bat bezala baino gehiago.

Bibliopolitiero bat hau da liburuak komertziazten diren thokia) bezala ezagutua da. Baina Phoinikia Berriko Biblo hira munduko historian sartuko da Bibliokaustra bat (hau da liburuak, bibloak erretzen diren thokia) bezala.

Baina Phoinikia Zaharra ta Phoinikia Berria hiri bat baino gehiago dira. Nun eta nolabait berteze hirien oharzuna bait dadukagu. Behar bada OIHARTZUN forma zaharretik

nolabait romanizatuta EASO izenaz onomatzen den hirian UGARIT delakoaen ekho bat dadukagu. Erraiten dutenez UGARIT hiri alfabeto inventatu, heuratu zuten. Baina zeintzu dira hemen analogi mageiko? Baldin eta Ugarit hiritik alfabetoaren hedatzeke beren semeak munduan zabaldu ba ziren, Easo-Donostiak ere ber seme bat itkhiz zen Phoinikia Berriaren Gubernura, baizan ez... euskal kulturaren hedatzaera, baizik eta desvirtuatzaera. Zeren eta persona hunen ipirituan, phoiniko materialista zahar guztietan bezala liburu batetan sartu behar den lanaren bidez guzietoki bizi izaiteko eskudieba bait zuketzen papergin, liburuzaltzaile, editore, tintafabrikant, liburu-josle guztiak gan hasita guztiok, saltu-eta liburuaz irazten duen irazleak. Halakotz hunelako phoiniko zanthar eta guztiok, salbu-eta liburuaz irazten duen irazleak. Halakotz hunelako phoiniko zanthar eta lukurero baten mentalitateaz Donostia Don Sebastian baten (hiria) ez da bilhakazten Sebastopol bat (hau da hiri veneragarria, edo Veneragarriaren hiri), ez eta UGARIT izan zen bezala era, Alphabétoli bat (nondit eta alfabeto hedatu bait da), aitzitik hunelako mentalitateaz hiriak analfabétoliak bilhakazten dira.

Baina hunelako izenaren proposamenaren egiteko Garate jaunak nolabaitko visionemageiko bat eduki ukhan behar zukeen. Guk hunelako gauzetan iraitzeko edo ta hauhen hautemaiteko, soilik hypothesisak formula ditzazkegu, baina hunelako basiak, hypothesisak eta mageikoak diren ber, entzugarriak eta ederrak izan litezke... baina jakintzazko ikhertzapenetan lan egiteko ez dira aski. Dudarik gabe phoiniko hitzaren erran-nahia graitkaraz gorri da, eta euskaldunen pendoina bethi kara-gorrikoa izan da, eta gaur egunean euskaldunetan nolabait gorriris erioa zabaldu da. Baina berteze urhentburuan era pentsatzen ba dugu, laister zitegenk zaizkigu Nostriadamus batek iratz zigazken propheteiak.

Huntara ere Garate jaunak phiztu nahi ukhan zuen Statua ez zen sortu, zeren eta herri berheizi batentzako statuaek ez bait dira

sortzen hunelako proiektu phantastikoen kausaz, baizik eta herriaren personalitate nazionalea heltu denean, eta ber hau soilik ardiesten da... herriaren personalitate ethnikoa hizkuntzaren bidez desarroillatu denean. Halakotz erraz ikhus dezakegu zein justu zen Lizarik zedukan ustea, ezen euskal literatura klasiko baten desarroillaren bidez, herriaren ipirituak arrano-anzoko elite-literatura ikasita, hegaz egiten jakin lezanean askatasunaren belatzak bere mokhoan askatasun-giltza ekharriko lerauegula. Huntara bi motakotz ekhaintzak dagoz. Herri osoak mintzatu hizkuntza zaindu behar duke, baina parallelki herriaren elite spiritualek literatur agorabaten hizkuntza goratu, aberastu ta perfektionatu behar duke. Baina bi ekhinta hauk nahasi behar ez dira, eta nola herriaren masak bere eginkizuna bethi behar bait du, halatan ere kultur-eliteak berea egin behar du, eta eginkizun hauk nahasi behar ez dira, zeren eta orduan ez bata ez berteze desarroillatzen ez bait diratezke. Hemen ere herri baten etsai amorrutuena demagegia delakotz. Herri bat ongi organizatu bizidun struktura bat da, eta hunelako struktura batetan, burua ta gorphutza egon behar dira, batbedera bere egin-beharreaz. Eta zenbatuz herri baten gorphutzaentzat janhari materiala beharrezko bait da, hanbatenez buruarentzat (eta buruaren bidez kreatu behar den) janhari kulturala beharrezkoa da, herria bere orobatunanean bizi ledin. Hau phoinikoek ez zekiten, eta hunela Historitk desageri dira.

Federico KRUTWIG SAGREDO

Cuando el político laborista Garat presentó a Napoleón I su proyecto de la creación de un estado de la "Nueva Fenicia", como él denominaba aquel Estado Vasco independiente, tuvo necesariamente que elegir ese nombre en base a algunas analogías, que muchas veces me he preguntado cuáles serían? Las encuentro, pero me parece más bien que se trata de *dys-analogías*, es decir que ofrecen muchas notas exactas, pero en algún punto fallan.

Los hijos de la Vieja Fenicia, parece que en su generalidad tenían en común con los de la Nueva Fenicia, unos *sórdidos* y exclusivos inte-

res comerciales que les impulsaban en su actividad, a diferencia de los griegos, que aun siendo comerciantes, llevaban consigo la humanidad a donde llegaban. Parece que los fenicios de la Vieja Fenicia eran hijos de marinos, puesto que los semitas eran marinos, y los fenicios eran marinos, pero con el cambio, parece ser que igualmente se produjo pronto la lengua erdara de sus sectores, y zonas de *sórdidos* intereses. Así pues, parece que la cultura de su patria tenía menos capacidad de comerciar con cualquier *vil materia* que coincidir ambas Fenicias. Tuvieron que ser más similitudes para Garat, para decir que el *BIBLO* al bre al conjunto. La primera vez que me acordé de la *BILBO*. La primera vez que me acordé de los libros. Una simple metáfora, pero normal. Pero si la primera pasó a la *BIBLIOPOLIS*, no tanto como una *BIBLIOPOLIS*, sino también como un *Bibliopolitiero* (hecho por el comercio de los libros) la segunda vez que me acordé a la historia como una *Bibliokaustra*. ¿Cuáles serían donde se queman los libros? ¿Cuáles serían otras analogías o pseudo-analogías que se refieren a Garat? ¿Cuál sería en la Nueva Fenicia la UGARIT, ciudad en donde se crea (o se parece), el alfabeto? Quizá en la *Oihartzun* (o *oihartzun*) lo tengamos en la *Oihartzun* (o *oihartzun*) *zada* en *Easo*, ciudad de donde salió el primer cierto día un hijo, no ya para proponer un *beto vasco*, sino con mentalidad de *antropólogo* a querer dirigir y controlar la cultura antes de la que él estaba como un *coego* en el mundo, pero que en la venta de un libro tenía el derecho a ganar todo el mundo, desde el autor, el editor, el fabricante del papel o de la imprenta, todo el mundo menos el autor del escrito. Una ciudad gobernando tales hijos en un país, una ciudad gobernando tales hijos en un país, ni en una *Alphabétoli* (como fue *Alphabétoli*), sino en una *Analfabétoli*. Se podrían buscar aún más analogías, pero cas entre ambas tierras, pero las hay. Quizá ellas no parecen muy halagüeñas, pero pareciera pasaría si comparara a otras partes de Fenicia, pero la verdad es que hay una parte ha existido un Garat, que haya sido dar a su patria independiente de la "Nueva Fenicia".